



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 14a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00005. Foru Lege proiektua, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat ematekoa (2. or.).
- 10-22/LEY-00006. Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan guztira 8.935.996 euroko aparteko kreditua ematekoa (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/MOC-00027. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuo enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).
- 10-23/MOC-00028. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbidea eman diezaion, Iruñeko Udalarekin batera, UDC Rochapea taldearen problematikari, egoera larrian baitago. Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (8. or.).
- 10-23/MOC-00016. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (9. or.).
- 10-23/MOC-00001. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da koordainketa aldatu eta beste zerbitzu batzuk osatzeko bateraezintasunak eta betekizunak malgutu ditzan. Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea (9. or.).
- 10-23/MOC-00002. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/PES-00075. Galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharra eta Muesko presa erromatarra kultur intereseko ondasun deklaratzeko izapideari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (11. or.).
- 10-23/PES-00076. Galdera, Torraspapel enpresari emandako laguntza publikoei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00005. Foru Lege proiektua, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat ematekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2023ko martxoaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat emateko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat emateko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat ematekoa

ATARIKOA

2022ko abenduaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-dekretua, Ukrainako gerra-

ren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartearen berreraikuntzari laguntzeko eta beste zaurgarritasun egoera bazuetarako neurriei buruzkoa.

20/2022 Errege Lege-dekretu horretan zuzeneko laguntzen sistema bat ezartzen da 2023ko lehen sei hilabeterako, hiri edo hiri arteko garraio kolektiboaren zerbitzua ematen duten autonomia erkidegoei eta toki erakundeei horren finantzaketan laguntzeko. Laguntza horri esker, %30eko hobaria egiten ahalko da autonomia erkidegoen edo udalen eskumeneko hiri eta hiri arteko garraioaren prezioan, baldin eta erkidego eta udal horiek erabakitzen badute %20ko hobari gehigarria egitea bidaia anitzeko abonuen eta tituluaren prezioan - joan-etorriko txartelak alde batera utziz-, halako moduan non bidaia anitzeko abonua eta titulu horien prezioa erdira, gutxienez ere, murrizteko konpromisoa hartuko baita.

2023ko otsailaren 9an, Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Orokorrak hartutako Erabakiaren bidez, Iruñerriko Hiri Garraioaren X. Plana (2023) aldatzea onetsi zen; bertan 29.422.693,86 euroko defizita onartu zen, zeinaren %65, 19.124.926,51 euro, Nafarroako Gobernuak finantzatu behar baitu, eta gainerakoa, berriz, 10.298.037,35 euro, udalek.

Horrenbestez, proposatzen da 1.224.927 euroko kreditu-gehigarri bat izapidetzea "Iruñerriko garraio publikorako ekarpena" izeneko 230001 23100 4609 441100 partidarako.

Bestetik, Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorretan 210001-21100-4609-922300 kodea eta "Petilla Aragoiko Udalerako transferentzia" izena duen partida bat dago, 10 euroko zenbatekoa duena. Egun ordaindu gabe daude Petilla Aragoiko Udalerari Aurrekontuaren zuzendari nagusiaren uztailaren 5eko 316/2019 Ebazpenaren 4. puntuan xedatutakoaren ondorioz dagozkion diru kopuruak. Ebazpen horren bidez Petilla Aragoiko "Los Bastanes" izeneko finkaren errentamendua 5

urtez esleitu zen (gehienez ere 20 urtera luzatzeko aukerarekin), apirilaren 30eko 175/2019 Ebazpenaren bidez (GP 2019005) deitutako enkante publikoan esleitu ere.

Puntu horretan ezartzen denez, errentamenduak eragindako diru-sarrera ordainduko da 2019ko sarreraren aurrekontuko "Petilla Aragoiko errentamendua" izeneko 111002-11300-5400-000002 partidaren eta hurrengo urteetako aurrekontuetan hurrenez hurren gaitzen diren partidetan.

Era berean, adierazten da errentamenduaren prezioa, partida horretan sartzen dena, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak ordainduko diola Petilla Aragoiko Udalar, Foru Diputazioaren 1980ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez udal horrekin izenpetu zen hitzarmenean ezarrita dagoen tutoretza araubide berezia dela eta.

Ondare Zerbitzuak finkaren errentamenduari dagokionez jaso dituen diru-sarrerak 44.086,35 euro dira 2021eko ekitaldian eta 48.406,80 euro 2022ko ekitaldian.

2021eko eta 2022ko ekitaldietan egin beharreko ordainketak egin gabe daudenez, eta toki erakundeak horiek jasotzeko eskubideak ez duenez preskribatu, beharrezkoa da 2023ko "Petilla Aragoiko Udalerako Transferentzia" izeneko 210001-21100-4609-922300 partidaren kreditu-gehigarri bat egitea, 92.500,00 eurokoa, Foru Komunitateko Administrazioak udal horrekin dituen betebeharrak betetzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua 1. puntuak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte

berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa.

Artikulu horren 2. apartatuan ezartzen denez, foru lege proiektu horretan zehaztu behar da zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatzeko dutenak; edozein gastu programatarako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

Lurralde Kohesiorako Departamenturako 1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri bat ematen da 2023ko ekitaldian.

Horietatik 1.224.927 euro Iruñerriko Mankomunitatean sortutako defizitari aurre egiteko erabiliko dira, eta 92.500,00 euro Petilla Aragoiko Udalar bertako "Los Bastanes" finkaren errentamendua esleitzeagatik dagokion dirua ordaintzeko.

Kreditu-gehigarri hau aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

"Iruñerriko garraio publikorako ekarpena" izeneko 230001-23100-4609-441100 partida	1.224.927 €
"Petilla Aragoiko Udalerako Transferentzia" izeneko 210001-21100-4609-922300 partida	92.500 €

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

1.317.427,00 euroko kreditu-gehigarri hau finantzatzeko da 2023ko gastuen aurrekontuko "Iruña-Logroño A-12 autobiarren kanona" izeneko 220003 22200 2090 453200 partidaren kargura.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

10-22/LEY-00006. Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan guztira 8.935.996 euroko aparteko kreditua ematekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2023ko martxoaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan guztira 8.935.996 euroko aparteko kreditua emateko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan guztira 8.935.996 euroko aparteko kreditua emateko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2023ko aurrekontuan guztira 8.935.996 euroko aparteko kreditua ematekoa.

ATARIKOA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Kultura eta Kirol Departamentuak txostenak bidali dituzte, non adierazten baitute 2023an ordaindu beharreko zenbait gastutarako ez dagoela aurrekontu-partida egokirik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat emateko. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2023rako aurrekontuan 8.935.996 euroko aparteko kreditua ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Aurrekontu-partida	ZENBATEKOA
330000-33100-7609-921137 "Abaurregaineko Udalarekiko hitzarmena, patata-nabea izandakoa birgaitzeko"	314.000,00
210001-21300-7609-261682 "Agoizko Udalarentzako transferentzia. Instalazio fotovoltaikoa Toki Eder udal pilotalekuan eta ikastetxeko kiroldegian"	188.000,00
210001-21300-7609-261683 "Erronkariko Udalarentzako transferentzia. Eskoletara doan oinezkoen pasealekuko zoladura, argiteria publikoa eta hiri altzariak"	75.000,00
220003-22200-6010-453313 "NA-4000. Lesaka-Eurovelon zeharkako drainatze-kanalizazio berria"	100.000,00
211001-21200-4600-942110 "Toki erakundeen kostu energetikoen igoerari aurre egiteko funts berezia"	8.000.000,00
A50001-A5400-7609-336200 "Fiteroko Udalarentzako dirulaguntza udal kiroldegiko ekipamendurako"	7.000,00
A20001-A2100-7609-337119 "Eloko Udalarentzako dirulaguntza Zubialdea Erdi Aroko zubia eta Txirria birgaitzeko"	46.996,00
A20003-A2300-7609-333106 "Tafallako Udalarentzako dirulaguntza: Jotaren interpretazio zentroa"	25.000,00
A20000-A2000-2268-334103 ""Navarro Villoslada" literatura sariketa, gaztelaniaz eta euskaraz"	20.000,00
A20002-A2500-4816-334118 "Dantzaz Elkartearrekiko hitzarmena"	10.000,00
A20003-A2300-4609-333103 "Luzaideko Udalarekiko hitzarmena, Populus Vasconiae eskultura multzoa egiteko eta haren inaugurazio ekitaldietarako"	10.000,00
A20002-A2500-7816-334100 "Nafarroako Antzerki Eskolarako dirulaguntza. Higiezinaren gaineko maileguaren amortizazioa"	40.000,00
A20001-A2100-7819-337103 "Aralarko San Migeleko ostaturia eta aterpetxea birgaitzeko azterketa/proiektua"	100.000,00
GUZTIRA	8.935.996,00

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

8.935.996 euroko aparteko kreditua honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura finantzatuko da:

Aurrekontuko partida	ZENBATEKOA
330000-33100-4400-921102 "(E) NASUVINSA-LURSARErako transferentzia: lurraldeko proiektu estrategikoen garapena"	174.000,00
330000-33100-7400-921103 "NASUVINSArako transferentzia-Jarduera ekonomiko berrietarako azpiegituren garapena, Pirinioetako Plana"	140.000,00
220003-22200-2090-453200 partida, "Iruña-Logroño A-12 autobiaaren kanona"	188.000,00
210001-21300-7609-2616B0 "(E) Erronkariko Udalarekiko Hitzarmena: eskola zaharrak egokitzea"	75.000,00
210001-21300-7609-452302 "Lesakako Udala. Lesaka-Eurovelo 0,90 kp-an zeharkako drainatze-kanalizazio berria"	100.000,00
113002-12000-8700-000003 "Toki ogasunen parte-hartze funtsari atxikitako diruzaintza gerakina"	8.000.000,00
A50000-A5000-7609-336100 "(E) Fiteroko Udalarentzako dirulaguntza, udal kiroldegiko ekipamendurako"	7.000,00
A00000-A0000-7609-331100 "(E) Eloko Udalarentzako dirulaguntza, Erdi Aroko Zubialdea zubia eta Txirria birgaitzeko"	46.996,00
A20002-A2500-4609-334108 "(E) Tafallako Udalarentzako dirulaguntza: Jotaren interpretazio zentroa"	25.000,00
A20001-A2100-2268-334100 "(E) "Navarro Villoslada" literatura sariketa, gaztelaniaz eta euskaraz"	20.000,00
A20003-A2300-4816-333107 "(E) Dantzaz Elkartearakiko hitzarmena"	10.000,00
A20001-A2100-4609-337102 "(E) Luzaideko Udalarekiko hitzarmena, "Populus Vasconiae eskultura multzoa egiteko eta haren inaugurazio ekitaldietarako"	10.000,00
A20002-A2500-4816-334107 "(E) Nafarroako Antzerki Eskolarako dirulaguntza"	40.000,00
A20001-A2100-2276-337107 "(E) Aralarko San Migeleko ostatua eta aterpetxea birgaitzeko azterketa/proiektua"	100.000,00
GUZTIRA	8.935.996,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00027. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboaren negoziarioari buruzko mozio hau aurkezten dute, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Joan den martxoaren 3an, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoetan ordezkaturik dauden sindikatuen ordezkariak agerraldia egin zuten Par-

lamentuko Ekonomia eta Ogasuneko lan-bilkura batean. Bertan, beren arrazoiak aurkeztu zituzten, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoentzako hitzarmen kolektibo bereki bat formalizatzea erreibindikatzeko.

Aurkezpenean zehar azaldu zutenaren arabera, enpresa publikoak gaur egun Bulego eta Langelen hitzarmenari atxikita daude, zeina ez zaion egokitzen enpresa publikoen errealitate eta problematikari; gainera, Nafarroako Gobernuak ez du inoiz parte hartu haren negoziazioan.

2016an lantalde iraunkor bat eratu zen, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko ordezkariak eta enpresa publikoetako langileen ordezkariak (langileen ordezkariak eta enpresa-batzordeak) parte hartuta, non aldeek zenbait arlotako hobekuntzak negoziatu dituzten, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak emandako jarraibideetan jaso direnak. Hala ere, salatu zuten moduan, jarraibide horiek ez dute segurtasun juridikorik, eta ez dago inolako oztoporik Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak haiek aldebakartasunez aldatu edo kentzeko; azaldu zutenaren arabera halaxe gertatu da kontrataziorako jarraibideekin edo aldi baterako ezintasuna ordaintzekoekin.

Egoera horrek agerian utzi ditu esparru horren gabeziak, eraginkortasunik gabea izan baita, eta erakutsi du negoziaketa-esparru bat sortu behar dela, egonkorra eta segurtasun juridikoarekin, lanaren kalitatea bermatze aldera enpresa publikoetan.

Horregatik guztiagatik, erreibindikatu zuten enpresa publikoentzako hitzarmen kolektibo bere-

ki bat negoziatzeko beharra. Egia izanik negoziazioa baldintzatzen duten legeak badirela lanaldia, soldata eta kontratazioa bezalako arloetan, badira beste gai asko negoziazioaren xede izan daitezkeenak, hala nola osagarriak, baimenak, laneko osasuna, prestakuntza, lanbide karrera, eta abar.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuo enpresa publikoen ordezkari sozialek egindako proposamena aintzat hartuz, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean sor dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan biltzen diren Nafarroako Gobernuo enpresa publikoen-tzako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 9an

Foru parlamentariak: Isabel Aranburu Bergua, Arantxa Izurdiaga Osinaga, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

10-23/MOC-00028. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbidea eman diezaion, Iruñeko Udalarekin batera, UDC Rochapea taldearen problematikari, egoera larrian baitago.

NAVARRA SUMA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita konponbidea eman diezaion, Iruñeko Udalarekin batera, UDC Rochapea taldearen problematikari, egoera larrian baitago.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kirol Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Kultura eta

Kiroleko Batzordean presako prozeduraz eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Joan den 2022ko ekainaren 2an Iruñeko Udalak aho batez onetsi zuen adierazpen instituzional bat, zeinaren bidez Iruñeko Udalak konpromisoa hartzen baitzuen konponbidea emateko UDC Rochapea taldearen problematikari, egoera ekonomiko eta juridiko larrian baitago.

UDC Rochapeak banku batekiko zor handia dauka, 2008tik datorrena, eta hainbat arrazoiengatik klubak ezin izan du amortizatu. Une honetan, pandemiaren eta egungo krisiaren ondorioak direla-eta, are ezinezkoagoa da zorrari aurre egitea.

Egia bada ere azken urteotan bankuarekiko gabeziak zenbait aldiz birnegoziatu direla, une honetan bankuak ez die jada aukera hori eskaintzen, eta bi aldeek eskatzen dute Udalak esku hartzea konponbide bat bilatzeko, ekidite aldera klubak hartzekodunen konkurtso bat aurkeztea, horretara baitago behartuta 2022ko ekainaren 30a baino lehen (egun horretan amaitzen da Konkurtso Legearen aparteko luzapena, pandemiaren ondoriozkoa).

Guk dakigula, UDC Rochapea zein bankua ahalegintzen ari dira oraindik ere irtenbide bat bilatzen, hartzekodunen konkurtsoa ekiditeko, horrek ekarriko lukeelako instalazioa ixtea, 27 lan-

gile kaleratzea eta klubaren narriadura. Ondorio horiek guztiek zaildu eginen lukete azkeneko konponbidea.

UDC Rochapea interes publikokotzat jotzen da Arrotxapea auzoari begira, eta bere instalazioak gehienbat Udalaren lurzoru publikoan eraikita daude, entitate horri 75 urterako emakiden bidez lagata.

Horregatik guztiagatik, Iruñeko Udalean udal talde guztiek adierazpena onetsi duten era berean, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Iruñeko Udalarekin batera, ukitutako bankuarekiko izan daitezkeen konponbide guztiak azter ditzan, ahalbidetze aldera irabazi asmorik gabeko kirol instalazio hori mantentzea, Arrotxapea auzoan eginkizun sozial ukaezina baitu, eta bila dezan UDC Rochapearen hartzekodunen konkurtsoa ekiditea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 9an

Foru parlamentariak: Raquel Garbayo Berdonces, Pablo Azcona Molinet, Maiorga Ramírez Erro, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

10-23/MOC-00016. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan Gastiaingo Errota Berriko presa eraits". Mozioa Miguel Bujan-

da cirauqui jaunak aurkeztu zuen eta 2023ko otsailaren 15eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00001. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da koordainketa aldatu eta beste zerbitzu batzuk osatzeko bateraezintasunak eta betekizunak malgutu ditzan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita koordainketa aldatu eta beste zerbitzu batzuk osatzeko bateraezinta-

sunak eta betekizunak malgutu ditzan. Mozioa 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00002. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta

Espainiako Gobernua premiatzen baitira 46. EUCOCOaren amaierako adierazpena babes dezaten. Mozioa 2023ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-23/PES-00075. Galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharra eta Muesko presa erromatarra kultur intereseko ondasun deklaratzeko izapideari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharra eta Muesko presa erromatarra kultur intereseko ondasun deklaratzeko izapideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hasi al da Vasco-Navarro trenbide zaharra Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko izapidea?

Hasi al da Muesko presa erromatarra Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko izapidea? Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinetan Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen "Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko espediente abiaturik baino lehen, lan-mahai bat era zezan ukitutako lursailen jabeekin, Muesko Udalarrekin eta Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuarekin, adoste aldera nola zedarritu aztarnategia babestea bermatuko duen perimetroa, bai eta sarbideak ere, hala aztarnategira nola ukitutako gainerako lursailletara". Eratu al da lan-mahai hori?

Iruñean, 2023ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-23/PES-00076. Galdera, Torraspapel enpresari emandako laguntza publikoei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Torraspapel enpresari emandako laguntza publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan Leitza kokatuta dagoen Torraspapel (LECTA Taldea) enpresak —Sarriopapel zenak— egiturazko edo teknologiako inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik) kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria edo bestelako kenkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu Sarriopapel/Torraspapel enpresak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2023ko martxoaren 9an.

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti